

VILLE
D'HENDAYE



HENDAIAKO
HERRIKO
ETXEA

UDALAK ESKAINI UR JARDUNAK (NINI IGERILARIAK, IGERIKETA ESKOLA ETA UR GIMNASTIKA)

- Jardunetarako abonamendu txartelek urritik ekainaren bukaera arte balio dute. Gutxienik 20 ikastaldi emanen dira (salbu arazo teknikoren bat bada).
- Eskola oporretan eta besta egunetan ez da ikastaldirik izanen.
- Haurrentzako igeriketa eskola eta ur gimnastika klaseek 45 mn irauten dute, helduentzako igeriketa eskolako klaseek ordu bat.
- Jardunak ordaintzeko azken epea azaroko lehen larunbata da
- Abonamendua hartzen duenak edo haren ordezkariak bermatuko du ez duela hautatu duen ur jardunean aritzeko medikuaren kontraindikaziorik.
- Arropaz aldatzeko kabinak edo aldagelak dituzu eskura.
- **8 urtez peko haurrak** heldu batek lagundu behar ditu eta haren erantzukizunaren pean izanen dira bainatokitara joan arte.
- Guraso edo laguntzaileei erregutzen diegu garaiz etor daitezen ikastaldia bururatzean, haurrak beren gain hartu eta, behar balitz, janzten laguntzeko.
- Aldageletara sartzea ikastaldia baino **10 minutu lehenago** egingen da eta abonatuak igurikatu beharko du taldearen ardura duen hezitzaileak ureratzeko baimena eman arte.
- “Abonatu” txartela hezitzaileei edota harrerako langileari aurkezteko gisan behar da ukan urte osoan.
- Urtean zehar galdatu **diru itzulketarik ez da onartuko** (salbu etxez edo lantokiz aldatuz gero edo osagarri arrazoiengatik bada).
- Saioetan, higiena zaintzeko, abonatu bakoitzak **bere bainatzeko txanoa eta bainujantzia** (galtzamoetik ez) behar ditu ukan.

Hendaiako Irandatz igerilekuko
bainatokiaren burua